



M^a Ángeles JAUREGUI IRARRETA
Arabako HEZKUNTZA ORDEZKARIA

Azken urte hauetan, Irakaskuntzak eta bereziki Publikoak etengabeko murrizketak jasan ditu: plantillak mehetu, baliabide gutxiago jaso, langileen ordezkapenak bete ez, prestakuntza eskasagoa...

Bertan lan egiten dugunon lan baldintzek ere nabarmen egin dute okerrera: lan-ordu gehiago, lan-karga handiagoa, laguntza gutxiago, soldaten izozketa, gaixotasunagatiko bajak ordaindu ez, jubilazioa atzeratu... eta orain berriki, soldataren %7a kendu zaigu.

Azken eraso Madrildik dator eta lege baten forma du, LOMCE delakoa: lege diskriminatzailea, atzerakoa, uniformatzailea, merkantilista eta antidemokratikoa, gure hezkuntza sistema zeharo hankaz gora jarriko duena.

Guzti horren aurrean, beraz, hauexek STEE-EILAS sindikatuak egiten dituen eskaerak:

- ✓ Aurreko urteetako MURRIZKETAK bertan behera uztea
- ✓ 2012ko soldata osoa ordaintzea
- ✓ LOMCE legearen ezarpenari uko egitea

2012ko abenduaren 19
STEE - EILAS

IRAKASKUNTZAN...
LAN BALDINTZETAN...

